

# ITZULIA URIBARRI GANBOAKO URTEGIAREN INGURUAN



**U**ribarri Ganboako urtegia ur biltegia baino askoz gehiago da. Zadorra ibaiaren ura jasotzen du eta EAEko urtegirik handiena da (146 hm<sup>3</sup>). Gaur egunean dituen egitekoak 50eko hamarkadan eraiki zenekoak eurak dira: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen erdiek behar duten ura hornitzen du eta inguruko milaka herritarren aisialdirako gune nagusietako bat da, batez ere udan.


Hezegune handi honen oparotasunaren funtsean bertan bizi diren izakiak daude: urtegia sortu zenetik hona animalia, landare eta mikroorganismo ugari nazioartean eta Europan aintzatetsitako ekosistema berezia sortu dute. Zer dagoen bertan? Hainbat hegazti, haritzak, sahatsak, lizarrak, erkametzak, balio ekologiko handiko hezeguneak, ur gaineko pasabideak, hondartzak... eta bazter zoragarriak Arabako hiriburutik, Gasteiztik, 15 kilometro eskasera.



Uribarri Gamboa.

## 1.TARTEA: URIBARRI GANBOAKO PRESATIK LANDARA

43 kilometrotik gorako ibilbide hau Uribarri Ganboan hasten da, urtegiaren presa nagusian. Ibilbide tarte guztiak ez dira zailtasun berekoak, eta hainbat alternatiba dauzkazu hautatzeko. Hemen osoena proposatuko dizugu! Ibilbide osoa egin edo tarte batzuk aukeratu zailtasunaren arabera: zeuk erabaki.

0 km	Ibilbidea presan hasten da. 0 kilometroa adierazten duen seinalea dago bertan. Abiatu urtegiaren ertzeko bidetik Uribarri Ganboa herrirantz; jarraitu seinaleei.
2,14 km	Uribarri Ganboa herriaren kartela dagoen lekura helduko zara. Egin aurrera 200 bat metro eta gero jarraitu eskuineko bidetik (ibilbidean markatuta dago eta herrian sartzen da).
2,7 km	Eskuinera jo behar duzu urtegia inguratzen duen bidetik segitzeko.
3,4 km	 Bideak bat egiten du errepidearekin: jarraitu eskuinetik. <b>Adi!</b> Ibilbideko tarte hau urtegiko errepide nagusian dago. Kontu handiarekin ibili behar da.
3,8 km	Orain eskuinera jo eta ibilbide berdetik jarraitu ahal duzu. Hurrengo punturaino 5 bat kilometroko ibilaldi ederra daukazu.
8,8 km	Ibilbideak bat egiten du asfaltozko errepide zaharrarekin. 600 metro inguru aurrerago Landa herriko aparkalekua dago.



Leku honetatik gertu  GR-25  pasatzen da, Arabako Lautada osoa mendien magaletik zeharkatzen duen ibilbide luzea.

## 2.TARTEA: LANDATIK GARAIOKO PARKERA

9,4 km	Landako aparkalekutik hegoalderantz abiatu behar da, zurezko pasabidetxo batean zehar. Errepidearen eskuinaldeko pinudia zeharkatu behar duzu eta gero Landako parke probintzian barneratu; apurka-apurka belartzak bidezidorra lausotuko du.
10 km	Landako hondartzak zeharkatu behar dituzu balizek markatzen duten bidetik. 200 metro ibili ondoren, aisiialdirako gun e batera helduko zara; komunak eta jolasak daude.
11 km	Alde honetan lursail bide batetik ibiliko zara, eskuinean urtegia duzula eta ezkerrean Elgeko mendilerroa.
20 km	Bidegurutze bat aurkituko duzu eta bertan Marietarako bidea, ezkerrean (ibilbideko tarte honetan herri horretara joateko aukera ematen duten beste bidegurutze batzuk ere badaude). Baliteke herri eder hori bisitatu nahi izatea; hala ez bada, ez egin kasurik ezkerreko bide horri eta segi zuzen aurrera.
20,8 km	Orain bidea nekezagoa izango da, aldapan gora doa eta. Eutsi gero! 300 metro baino ez dira.
21,6 km	Toki honetatik aurrera bideko zorua legarrezkoa da. Orain arteko bidetik irten behar duzu eta esparruaren paralelo doan zidorretik abiatu, eskuinetik.
22,6 km	Beste bidegurutze batera helduko zara (Marietara joateko beste bide bat). Legarrezko bidea hartu behar duzu eskuinerantz; apur bat ibilitakoan, Azuako pasabidea ikusiko duzu.



### URIBARRI GANBOAKO URTEGIA

Urtegi hau Zadorra ibaiaren urtegien sistemako sare hidrologikoan dago, Santa Garazikoarekin eta Albinakoarekin batera. Hiru urtegiok Natura 2000 Sarean daude. Batasunaren garrantzizko lekuak dira ur inguruneke landare eta animalia espezieen artapenerako.



Urtegiaren ondoan hainbat udalerrri daude, Uribarri Ganboako Kontzejua, urtegiari izena ematen diona, nagusi dela. Herri honetan San Andres eliza bisitatu dezakezu; estiloz gotikoa da eta XV. eta XVI. mendeetan zehar eraiki zuten. Oinplanoa gurutze latindarraren arabera dago antolatuta; barruko elementurik aipagarriena erretaula nagusia da, Pedro de Ayala maisu eskultoreak egina.

23,1 km	Azuako pasabidean zaude. Bi aukera daukazu: pasabidea zeharkatu eta ibilbideko zati bat saihestu edo zuzen jarraitu (pasabidearen azpitik) eta ibilbide osoa egin. Egin dezagun ibilbide osoa!
24,7 km	Ibilbidean aurrera eginez gero, lasterbidea alde batera utzita, Zadorrako pasabidera helduko zara. Bertatik abiatuta, bidegurutze batera iritsiko zara. Hemen ezkerreko bide hartu behar duzu, Otxandako behatokia doana.
25,5 km	Otxandako behatokia heldu zara. Gozatu ikuspegiak!
26 km	Jo ezkerredera eta hasi asfaltotik ibiltzen. Errepide honetatik jarraitu behar duzu Gasteizerantz.
26,3 km	Garaioke parke probintzialeko informazio zentzora helduko zara. Norabide berean jarraitu behar duzu Gasteizerantz.



Zadorraren adarretako begiratokia

### 3.TARTEA: GARAIOTIK LANGARA GANBOARA

27 km	 Bidegurutzea. Ezkerreko errepidetik jo behar duzu. <b>Adi!</b> Baliteke ibilgailuak etortzea aurrez.
27,6 km	Garaioke parke probintzialeko sarrera nagusian zaudela, aparkalekutik joanda, seinaleztatutako bidetik abiatu behar duzu eta gero zurezko atekka bat zeharkatu behar duzu.
	<i>Orain <a href="#">Uribarri Ganboako urtegiaren adarretako</a> hezegunean zaude. Hezegune hau Nazioarteko Garrantzizko Hezeguneen Zerrendan dago (Ramsar).</i>
28 km	Pasabide luze bat zeharkatu behar duzu, 300 metro ingurukoa, eta gero ibilbidetik jarraitu.
28,6 km	Hegazti behatoki txikitxo batera helduko zara. Ezkerredera egin behar duzu eta esparrua zeharkatu legarrezko bide batera heltzeko.

28,9 km	Bide horretatik gora egin behar duzu bidegurutze bateraino. Bertan eskuineko bidea hartu behar duzu. Ezkerrekotik aurrera 500 bat metro eginez gero, Mendixurko parke ornitologikora helduko zara.
29,7 km	Bideak behera egiten du zurezko pasabide batera heldu arte. Orain Mendixurko parkearen eta Uribarri Ganboako urtegiaren artean dagoen presaren gainetik pasatu behar duzu.
30 km	Urizarko kaleetan ibiliko zara, gaur egun lursail bideak badira ere. Lehenengo bidegurutzean eskuineko bidea hartu behar da. Aurrera egin eta beste bidegurutze batera helduko zara. Honetan ere eskuinera jo behar duzu, eta gero 100 bat metro ibili asfaltozko tarte batean.
30,2 km	Zurezko baliza batek markatzen duen bidetik jarraitu behar duzu urtegiaren ertzeraino.
30,4 km	Ura aurrean duzula, hesi bat zeharkatu behar duzu, eta gero ezkerredera jo. Ibilbideak urtegiaren ertzetik jarraitzen du.
31,1 km	Toki honetan ibilbidearekin bat egiten du ezkerretik datorren bide batek*. Ez egin kasurik eta segi aurrera zuzen.



\*Hemendik oso gertu dago ○○○GR-38○○○

34,5 km	Urtegiko bihurtunea. Ur ertzetik hurbilen dagoen bidetik jarraitu behar duzu, eskuinetik.
35 km	Azua herrira helduko zara. Segi zuzen, herria ezkerrean duzula.
35,6 km	Bidegurutzea. Utzi Azuako pasabidea eskuinean eta jarraitu aurrera; gozatu ikuspegia: abereak larrean, argi islak uretan...



Zadorra ibaiko pasabidea.

## HEGAZTIEN PARADISUA



**G**anboa harana izugarri aldatu zen urtegia eraiki zenean; eraldaketa haren ondorioz ekosistema garrantzitsua sortu zen, gaur egun **nazioarteko erreferentea dena landaretzaren eta faunaren artapenean** eta biodibertsitatearen iraun-arazpenean. Urtegia uretako hegazti espezie askoren bizi, babes eta atsedenleku da; bertan pausatzen dira elikatzeko eta lumaberritzeko. 225 hegazti espezie baino gehiago ikuskatu dira; espezie horien heren bat urari lotuta daude eta, gorabehera batzuekin, modu iraunkorrean bizi dira inguru honetan.

2002. urtean urtegiaren hegoaldeko adarrak edo badiak **Nazioarteko Garrantziko Hezeguneen Zerrendan (Ramsar)** sartu dituzte. Zadorraren adarrak Garaioiko parke probintziala inguratzen du iparretik, ur gaineko pasabidetik Zadorraren ura urtegiara isurtzen den tokiraino. Mendixurko adarrak Mendixurko parke ornitologikoa eta Oreningo uhartea inguratzen ditu hegotik. Guztira, bi adarrek 397 hektarea hartzen dituzte. Habitat hau aukeratzen dute umatzeko lertxun gorriak, murgil handiak, ipar ahateak, zikoina zuriak eta murgilari mottodunak, besteak beste. Gainera, lertxun hauskarak bertan pasatzen du negua, eta milaka hegazti elika-tzen eta pausatzen dira. Urtegiako uretan igeri ibili ohi dira barboa, lutoa eta amuarraina, eta inguruetan jauzika eta herrestan zuhai-tzetako igel arrunta, gardatxoa eta hainbat suge espezie. Biso europarrak, igarabak eta ur arratoiak ere babeslekua aurkitu dute alde honetan.

**Oreningo uhartea leku berezia da, zikoin habia ugari daude eta.**





#### 4.TARTEA: LANGARA GANBOATIK PRESARA

**38,5 km**

Langara Ganboara iritsiko zara. Herria inguratu behar duzu urtegiko ertzeko bidetik pasabidea dagoen lekuraino. Bidetik jarraitu behar duzu.

**38,9 km**

Erronka bati ekin behar! Malda gogorrean gora egin behar duzu.

**39,5 km**

Bidegurutze batera helduko zara; seinaleak daude. Eskuineko bidea hartu eta igotzen jarraitu behar duzu.



39,9 km	Beste bidegurutze bat. Hesia zeharkatu behar duzu eta gero ezkerrera jo.
40 km	 A-4011 errepidera helduko zara. Jarraitu eskuinetik. <b>Adi! Errepide tarte batean zaude.</b>
40,8 km	Seinale batek eskuinean markatzen duen bidea hartu behar duzu; aurrera eginda ibilbide berdera itzuliko zara. Aldats gora berriz ere, eta gogor gainera!
41,3 km	Amaitu dira aldapak. Amaieratik gertu gaude!
41,8 km	Hesi bat zeharkatu behar da eta bidetik jarraitu.
42,1 km	Beste hesi bat pasatu behar da eta gero landa bat zeharkatu. Ehun bat metro ibilitakoan ezkerrera jo behar duzu.
42,5 km	Hemen zidorra bidexka bihurtzen da.
42,8 km	Eskuinetik jarraitu behar duzu. Hemendik aurrera aldapan behera joango zara.
43,1 km	Zadorrako pasabidea zeharkatu behar duzu.
43,5 km	Alde honetan asfaltozko tartetxo bat dago.
43,8 km	Amaitu duzu! Abialekuan zaude berriro, urtegiko presan.



## AISIALDIA ETA NATURA

Landako eta Garaioko parke probintzietan aisialdirako guneak, bainatzeko atondutako hondartza artifizialak, landak, iturriak eta askaldegia daude (argazkian Garaiokoa). Horien osagarri bisitak eta jarduerak egiteko aukera ematen dute, bizikletak alokatu daitezke eta altxor baliotsu bat dute: Mendixurko parke ornitologikoko hegaztien behatokia.

Zuhatzako uhartea aisialdirako prestatuta dago, batez ere gazteak eta familia osoak gogoan hartuta. Bertako aterpetxea Arabako Foru Aldundiaren sareko estimatuenetako bat da.

Gainera, urtegiaren uretako jarduera asko egiten dira: arrantzan berariaz mugatutako barrutietan eta uretako kirolak urtegiako bi klubetan (Aldaieta eta Gasteiz klub nautikoak).



Azuako pasabidea.

## LEKU INTERESGARRIAK



### NATURA ETA PAISAIA

1. Mendixurko parke ornitologikoa
2. Elgeko mendiak
3. Arzubiagako haritzia
4. Zuhatzako uhartea
5. Oreningo uhartea
6. Zadorra ibaia
7. Otxandako begiratokia
8. Zadorraren adarretako begiratokia



### KULTURA

1. San Andres eliza. Uribarri Ganboa
2. Uribarri Ganboako gurutzea
3. Aldaietako aztarnategia. Langara Ganboa




### AISIALDIRAKO GUNEAK

1. Landako parke probintziala
2. Garaioke parke probintziala
3. Aldaieta klub nautikoa
4. Gasteiz klub nautikoa
5. Zuhatzako aterpetxea
6. Bizikleta alokairua: Garaio

## MAPA



## IBILBIDEAREN PROFILA



## FITXA TEKNIKOA

**Nola heldu:** Gasteiztik joanez gero, A-3002

**Distantzia, guztira:** 43,8 kilometro

**Iraupena, gutxi gorabehera:** 4 ordu

**Zailtasuna:** Txikia

**Gomendatutako bizikleta:** BTTa

**Desnibel metatua:** 407 metro

## EZ GERATU IKUSI GABE...



### MENDIXURKO PARKE ORNITOLOGIKOA

**P**arke hau urtegi gogoaldeko adarretan dago; 70 hektarea baino gehiago hartzen ditu. Urtegi adar horiek Natura 2000 Sarean daude eta nazioarteko garrantzia dute, Ramsar hezeguneen zerrendan daude eta. Aberastasunik handiena: hegaztiak.

Mendixurren hegazti espezie asko ikus daitezke, batzuk ingurune oparo honetan bizi direnak eta beste batzuk bisitan etortzen direnak. Murgilak, kopetazuriak eta txilinportak urte osoan bizi dira hezegune honetan. Migrazioaldietan (udaberrian eta udazkenean) Mendixurrek bere oparotasuna bete-betean erakusten du; aldi horietan nahikoa erraz ikusiko dituzu hegaztiak habiak egiten, bai eta entzute handiko hainbat bisitari ere: lertxun hauskarak, miru beltzak, beltzak eta larre-buztanikarak, besteak beste. Udan hezeguneari "sedukzioa" dario. Urtaro honetan ohikoa da hegaztiak ikustea beren burua nabarmentzen laguna erakarri nahian, gorteiatzen... Udaberria da urtarorik ugariena, baina neguan ere miraz geldituko zara iparreko hotzetik ihesi pasatzen diren antzara, hegabera eta kurriko aldrak ikusten dituzunean.

Parkean behatoki batzuk ezarri dira ikuskizun hori gozatzeko; berariaz atondua daude eserlekuekin eta informazio jakingarriarekin. Gainera badaude gidari espezializatuak ere, parkea ezagutzen eta bertako ingurunearen berri ikasten laguntzen dutenak. Bisitak dohain dira; euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke, eta ez dute irauten ordubete baino luzeago. Oso gomendagarriak dira.